




BIZIKIDETZA arautegia

Decreto FORAL 47/2010



ean oinarritua

Bertsioa: 2014ko ekaina

0.- IKASLEEN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK..... 3. Orr.

I.- OSOKO HEZIKETA

- Eskubide eta betebeharrak..... 3. Orr

- Bizikidetzako arauak..... .4. Orr.

- Zuzendu beharko liratekeen portaerak eta graduan graduako hezkuntza-neurriak..... 4. Orr.

II.- PERTSONEI ETA INGURUNEARI ZOR ZAIEN ERRESPETUA

- Eskubide eta betebeharrak 5. Orr

- Bizikidetzako arauak 5. Orr

- Zuzendu beharko liratekeen portaerak eta graduan graduako hezkuntza-neurriak..... 5. Orr

HEZKUNTZA-NEURRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK..... 6. Orr

BAP¹-EI HEZKUNTZA-NEURRIAK EZARTZEKO PROZEDURA..... 7. Orr

OHIKO HEZKUNTZA-NEURRIAK

Bizikidetzaren aurkako portaerak 8. Orr

Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak..... 8. Orr

Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeretan hezkuntza-neurriak aplikatzeko ohiko prozedura..... 8. Orr

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA

elkarbizitzaconvivencia@gmail.com

¹ Bizikidetzaren Aurkako Portaerak.

Arautegi hau 2010-2011 ikasturteaz geroz indarrean dagoen Bizikidetza Planetik sortu da, honako hauek aplikatzearen ondorioz: ikasleen eskubide eta betebeharren eta ikastetxeetako bizikidetzaren Foru Dekretua (47/2010eko abuztuak 23) eta Nafarroako Foru Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxe publiko eta kontzertatuetako bizikidetza arautzen duen Foru Araua (204/2010eko abuztuak 16). IES Zizur BHIko Eskola Kontseiluak onartu zuen, aho batez, 2011ko abenduaren 20an.

Bizikidetza Planaren baitako araudia honako osagai hauek egituratzen dute:

- Bizikidetzako arauak, ikasleen Eskubide eta Betebeharren gauzatzea diren heinean.
- Zuzendu beharko liratekeen portaerak.
- Hezkuntza-neurriak eta beroriek ezartzeko irizpide eta prozedurak.

0.- IKASLEEN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
Oinarrizko eskubide eta askatasunak begiratuko dituen heziketa bat jasotzeko eskubidea... • ... Bizikidetzako printzipio demokratikoen arabera, hau da, gatazkak aurreikusiz eta beroriek era baketsuan ebatziz. • ... Espainiako Konstituzioak, Foru Hobekuntzak eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aintzat hartzen dituzten printzipio eta balioen arabera. • ... Dekretu honetan biltzen diren eskubide eta betebeharren arabera.	Bizikidetza hobetzen parte hartzea eta laguntzea Zera esan nahi baitu: - Ikastetxeko arauak betetzea. - Hezkuntza arloko jardueretan modu aktiboan parte hartzea. - Irakasleek ikasteko giro egoki bat susta dezaten laguntzea. - Gatazkak modu baketsu eta bidezkoan ebaztea. - Laguntza behar dutenei laguntzea. - Pertsona zaurgarrienei laguntzea. - Ikastetxeko bizikidetzako arauen prestakuntzan parte hartzea. - Hezkuntzako beharrian bereziak dituzten ikasleak Ikastetxeko bizitzan eta jardueretan ari daitezen, Ikastetxearekin modu aktiboan parte hartzea.
Ikastetxeko bizitzan parte hartzeko eskubidea Zera esan nahi baitu: - Ikasleen ordezkarien bitartez parte hartzea. - Irizkiak begirunez adierazteko askatasuna. - Ikastetxean biltzeko eskubidea. - Elkarreak eratzeko eskubidea. - Gatazkak ebatzearren, kontziliazio bideak erabiltzea. - Gobernu-organoetan parte hartzea.	

I.- OSOKO HEZIKETA

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
Osoko heziketa jasotzeko eskubidea - Garapen pertsonala eta gizarte-integrazioa ahalbideratzen dituzten oinarrizko gaitasunetan sakonduz. - Curriculumaren arlo guztietan kalitatea irizpide erabiliz. - Ikasle bakoitzaren izaerarekin eta ahalmenarekin egokitzen saiatuz. - Pertsonen arteko harremanak onbideratzen dituen hezkuntza emozionala ere aintzat hartuz. - Funts zientifiko eta didaktikoa —alderdi etiko-morala ez ezik— daukaten jarduerak garatuz. - Ikasle bakoitzak dituen gaitasun, ahalmen eta interesen araberrako erabakiak hartzea ahalbideratzen duen orientazio akademiko, pertsonal eta profesionala eskainiz. - Nafarroako Foru Erkidegoko aniztasun linguistikoa errespetatuz.	Ikasi beharra Zera esan nahi baitu: - Eskolara joatea eta modu aktiboan parte hartzea. - Garaiz iristea eta ordutegiak errespetatzea. - Ikastea eta ahalegintzea. - Atsedena, elikadura eta higiena arduraz kudeatzea.
Objetibotasunez baloratua izateko eskubidea Zera esan nahi baitu: - Programazio didaktikoa ezagutzea. - Norbere ikasprozesuaren bilakaeraren gaineko informazioa jasotzea. - Aurreko horren arabera hartzen diren erabakien berri jasotzea. - Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenari jarraikiz, norberak lortutako kalifikazioei buruzko argibideak eskatu ahal izatea eta beraren gain hartu diren erabakien gaineko erreklamazioak aurkezteko aukera izatea.	
Aukera-berdintasunean hezia izateko eta gizarte-babesa jasotzeko eskubidea Zera esan nahi baitu: - Balizko desberdintasun edo desabantailak murrizteko laguntza eta babesa jasotzea. - Familiarteko egoera zailetan —hala nola ezbehar, istripu edo arduragabekeria kasuetan— babesa jasotzea. - Terrorismoa, genero indarkeria edo eskolako jazarpena sufrituz gero, laguntza eta babesa jasotzea.	
Norbere osasuna babesteko eta hobetzeko eskubidea Zera esan nahi baitu: - Ikastetxean ohitura osasungarriak sustatzea: jarduera egokituak, esertzeko jarrera aproposak, gainzamak saihestuko dituen ikasmateriala. - Jarduera fisikoaren eta elikaduraren gaineko ohitura osasungarriak sustatzea.	

BIZIKIDETZAKO ARAUAK					
1.- Eskolara etortzea nahitaezkoa da. - Ikastetxeak familiari helaraziko dizkio huts egiteak. - Familiak ikaslea Ikastetxera itzuli denetik bi egunen burura justifikatu behar ditu ikaslearen huts egiteak. 2.- Ikasleak puntualtasunez iritsi behar du eskola-jarduera guztietara. Berandu iritsiz gero, “R” puntualtasun falta ezarriko zaio; irakasleak erabakiko du ikaslea ikasgelan edo zaintza-gelan geldituko den. 3.- Pasabideak Ikastetxeko langile guztiak igarotzen diren lekuak dira; beraz, inork ez du bertan egonean gelditu behar. 4.- Komunak ez dira atsedendietan baizik erabiliko. Salbuespenetan, beste orduren batean erabili ahal izanzen dira, beti ere irakaslearen baimena izanez gero. 5.- Eskola-jardueretako parte-hartze txandak errespetatu egin behar dira eta isilik egon behar da azalpenetan. 6.- Ikaslearen ahalegina arlo guztietan baloratuko da, Programazio Didaktikoetan adierazitakoaren arabera. 7.- Ikasleak, eskola hasieran, beharrezko duen materiala izan behar du, eta eskola bukaeran jaso. 8.- Ikasleak ikasgelako ordena zaindu behar du, eta kontuz erabili behar du eman dioten materiala eta ikasgelakoa bertakoa. 9.- Ikasleak irakaslearekin adostutako egunean eta orduan entregatu behar ditu etxerako nahiz eskolako lanak eta utzi zaion materiala. 10.- Ikasleak atsedean hartuta, ongi elikatuta eta garbi etorri behar du Ikastetxera. 11.- Ez dago erretzerik, ezta alkohola edo osasunerako kaltegarri den bestelako sustantziarik hartzerik ere Ikastetxe barnean, eskolako garraioan edo Ikastetxeak antolaturiko jarduerak iraun bitartean. 12.- Indarrean dagoen arautegiarekin bat, batxilergoko ikasleak atsedendian Ikastetxetik atera daitezke.					
Zuzendu beharko liratekeen portaerak		Hezkuntza neurri graduatuak			
		1.a	2.a	3.a	4.a
BAP	1.- Ikasteko betebeharra ez konplitzea, edo ikaskideen ikasteko betebeharra eta eskubidea galaraz lezakeen zernahi beste portaera izatea eskola-orduan.	a (P) edo b (saio 1: P)	-b (portaeran tematzeagatik, saio bat baino gehiago: IB)	d (IB, tutoreak proposatu)	e (IB, tutoreak proposatu) Beste batzuk
	2.- Eskolara ez etortzea edo, justifikatu gabe, berandu iristea. - Puntualtasun- edo hutsegite-faltak pilatzea.	i (P)	i (P) 6 saio pilatuz gero, etxera deituko du tutoreak	c (justifikatu gabeko 10 saio, tutoreak proposatu; familiari jakinarazi, eta IBk aplikatu)	Beste batzuk, ebaluazio jarraituaren eskubidea galtzea barne. (III. eranskina)
	3.- Behin eta berriz beharrezko materialik gabe eskolaratzea, huts hori ikaslearen erantzukizuna denean.	i (P) edo/eta	j (P)	c (tutoreak proposatu, eta IBk aplikatu)	Beste batzuk
	4.- Hala etxean nola ikasgelan, behin eta berriz lan gutxi egitea.	i (P) edo/eta	j (P)	c (tutoreak proposatu, eta IBk aplikatu)	Beste batzuk
	5.-Azterketa, froga edo ariketetan kopiaetzea edo bestek kopiaitzeko bidea erraztea.	h (P)	Beste batzuk		
	6.- Ikastetxe barnean, eskolako garraioan edo Ikastetxeak antolaturiko jarduerak iraun bitartean tabakoa erretzea edo edari alkoholodunak edatea.	Etxera jakinarazpena	Egun bateko kanporaketa	Hiru eguneko kanporaketa	BBKP bihurtzen da
BBKP	1.- Eginkizun akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo ebastea. Berezikari iriziko zaio azterketa-ereduak edo erantzunen kopiak ebastea, eta haiek hedatu, eduki, erosi edo saltzeari.	h (BAP) + d egun bat	h (BAP) + d bi egun	h (BAP) + d hiru egun	Beste batzuk h (BAP) + d lau egun eta salaketa zibila
	2.- Ikastetxe barnean drogak kontsumitzea edo banatzea, eta, halaber, behin eta berriz tabakoa erretzea edo edari alkoholodunak edatea Ikastetxean, eskolako garraioan edo Ikastetxeak antolaturiko jarduerak iraun bitartean, edota ikaskideak portaera horietan jokaraztea.	d, bi egun eta salaketa tartean trafikoa badago	d, lau egun eta salaketa tartean trafikoa badago	d, zazpi egun eta salaketa tartean trafikoa badago	f Beste batzuk
	3.- Bizikidetzaren aurkako portaeretan tematzea.	a edo b,	b, bestela d bi egun	d lau egun	f
	4.- Ikastetxeko jardueren ohiko bidea oztopatu nahian prestatutako edozein bidegabekeria edo ekintza egitea.	a edo b	b, bestela d bi egun	d lau egun	

II.- PERTSONENGANAKO ETA INGURUAREKIKO ERRESPETUA

ESKUBIDEAK		BETEBEHARRAK				
Errespetatua izateko eskubidea		Pertsonak errespetatzea				
Zera esan nahi baitu: - Intimitatearen aldeko errespetua. - Kontzientzia-askatasunaren aldeko errespetua, baita nor bakoitzaren konbikzio ideologiko, erlijioso eta moralen aldekoa ere. - Pertsonen aniztasunaren eta ezberdintasunaren aldeko errespetua. - Zernahi eratako zernahi erasoren aurkako babesia izatea. - Bizikidetza-giro positibo, adeitsu eta solidario bat sustatzea. - Datu pertsonalak konfidentziasunez erabiltzea.		Zera esan nahi baitu: - Errespetua bizikidetzaren funtsezko arau izatea. - Eskubide eta betebeharrak bete daitezen onestea eta laguntzea. - Baketsuki jokatzeta eta jokaera bakezaleak sustatzea. - Kontzientzia-askatasuna errespetatzea. - Norberaren nahiz besteren ondasunak errespetatzea.				
		Aginpidea errespetatzea				
Gizon eta emakumeendako eskubide- nahiz aukera-berdintasunean hezia izateko eskubidea		Zera esan nahi baitu: - Irakasleen eta zuzendaritza-taldearen heziketa-lana errespetatzea. - Ikastetxean diharduten gainerako langileen aginduak errespetatzea eta betetzea. - Irakasleek agindutako lanak egitea. - Ikastetxeko heziketa-proiektua errespetatzea.				
Zera esan nahi baitu: - Independentzia eta autonomia pertsonalak lortzeko gaitasunak garatzea eta ezagutza nahiz trebetasunak atxikitzea. - Erabaki-eremuetako parte-hartzea erantzunkidea izan dadin onartzea. - Gizonak eta emakumeak neurri berean balioestea. - Sexismorik gabeko hizkuntza erabiltzea eta komunikatzeko estiloen aniztasuna errespetatzea. - Hautapen akademiko nahiz profesionalei dagokienez, sexuari atxikitako estereotipoak baztertzeko gai izatea. - Heldutasun pertsonal, sozial eta morala sendotzea: norberaren harreman pertsonaletan autonomiaz jokatzeta, desberdintasunak aztertzeko gaitasuna lortzea, pertsonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra sustatzeko ahalmena izatea.		Ikastetxera egoki jantzita eta garbi etortzea				
		Zera esan nahi baitu: - Ikastetxeko jarduerak egiteko janzkera egokia erabiltzea. - Ikaslearen identifikazioa eragozten ez duen janzkera erabiltzea. - Janzkeraren erabilerari buruz Ikastetxeak dioena betetzea. - Nork bere burua garbitzea eta higiene-ohiturak begiratzea.				
		Instalazioak zaintzea				
		Zera esan nahi baitu: - Ikastetxeko instalazioak eta ekipamendua errespetatzea eta zaintzea. - Eskolako garraio-zerbitzuko ibilgailuak errespetatzea. - Ura, energia eta hondakinak egokiro erabiliz, ingurumena errespetatzea. - Ikastetxeko ingurumariak errespetatzea.				
BIZIKIDETZA ARAUAK						
13.- Pertsonenganako, berorien ondasunekiko eta Ikastetxeko instalazioekiko errespetua da hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harremanak gobernatzen dituen funtsezko araua.						
14.- Irakaslea da araua betearaziko duen lehen arduraduna. Arau jakin bat existitzen ez denean, edo era ezberdinetara uler daitekeenean, ikasleak irakasleak agindutakoa beteko du.						
15.- Janzkera egokia —eta Ikastetxean dauden pertsonetikiko errespetuzkoa— erabiliko da bertako jarduerak egiteko (gorputz-heziketa, tailerrak, sukaldaritza,...): ez du identifikazioa eragotzi behar; ezin du min eman dezakeen osagairik izan; agerian utzi behar du burua (medikuaren aginduz izan ezean), ...						
16.- Debekaturik dago eskola-orduen ohiko garapena eragotz dezakeen aparailu elektroniko oro (EK-ko 2000-I-20ko akordioa).						
17.- Instalazioak garbi egon daitezen lagundu behar da, zaborrontziak eta Ikastetxean hondakinak biltzeko ezarritako edukiontzi ugariak egokiro erabiliz, batik bat patioan eta pasabideetan, atsedenaldi garaian.						
18.- Ikastetxean, autobusetan edo jarduera osagarrietan bisitatzen diren instalazioetan ikasle batek zerbait hondatzen badu, berori arduratuko da hondatutakoa berritzeaz edo konponketa ordaintzeaz.						
Zuzendu beharko liratekeen portaerak		Hezkuntza neurri graduatuak				
		1.a	2.a	3.a	4.a	5.a
BAP	7.- Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpenak egitea, edo hezkuntza-proiektuaren nahiz Ikastetxearen beraren izaeraren aurkakoak.	k	a	c	f	E
	8.- Irakasleen aginteari errespeturik ez izatea, eta Ikastetxeko langileei —hauek beti ere beren eginkizunen barrutian ari direnean— desobedientzia egitea.	l, eta behar izanez gero, k	l, eta behar izanez gero, a	b	B	
	9.- Eskola-elkarteko kideak edo Ikastetxean diharduten gainerako langileak desegoki eta adeitasunik gabe tratatzea.	b, k, l, m, q Kasuan kasu eta intentsitatea graduatuz				
	10.- Zuzendaritzaren baimenik gabe, taldekako eskola-absentzietan parte hartzea.	h, azterketa edo kontrol batera huts eginez gero, edo lan bat dagokion egunean entregatu ezean. Ez etortze hutsegite baten kontsiderazioa emanen zaio. 2 zenbakiaren trataera bera.				Beste batzuk
	11.- Ikastetxeko langileei gezur esatea edo informazio faltsua berariaz ematea, horrek eskola-elkarteko kideei	n	a edo d	c	Beste batzuk	

	edo bertan diharduten gainerako langileei kalte larriak eragiten ez badie.					
	12.- Ikastetxeak debekatu dituen ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak soinean eramatea edo erabiltzea.	ASTEBETEZ uztea	HILABETEZ uztea	BI HILABETEZ uztea	HIRU HILABETEZ uztea	Ikasturte AMAIERA ARTE uztea
	13.- Ikastetxeak janzkerari dagokionez ezartzen dituen arauak ez betetzea.	- r	- a	- c	.- e	Beste batzuk
	14.- Norberaren higienari eta garbitasunari berariaz eta <u>maiztasunez</u> arreta kentzea.	a (garbiketako saio informatiboa)	.- c	.- e	.- r	Beste batzuk
	15.- Ikastetxeko instalazio edo materialetan, eskola-garraioetan edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioetan berariaz kalte arinen bat eragitea –baita eskola-elkarteko kideen edo Ikastetxean dihardutenen gainerako langileen gauzakietan eragiten denean ere–.	- a eta p (beti)	.- d eta p (beti)	Beste batzuk		
	16.- Ikastetxeak familiari bidaltzen dion informazioa ez helaraztea.	t	.- q	Beste batzuk		
	17.- Eskola-jardueraren ohiko garapena galarazten duen beste edozer jokabide oker egitea.	a , c edo b (kasuan kasu)	Beste batzuk			
	18.- Ikastetxeko espazioak, materialak eta ekipamendua baimenik gabe –edo hezkuntzakoez nahiz baimendutakoez besteko helburuetarako– erabiltzea.	- a , c edo b (kasuan kasu)	Beste batzuk			
	19.- Ikastetxeko, eskola-garraioetako edo Ikastetxeak bisitatzen dituen lekuetako garbitasuna hondatzea, pintaketak bereziki kontsideratuko direlarik.	.- e, p eta g (behar izanez gero) d: egun bateko garbiketa egin beharra	.- e, p eta g (behar izanez gero) d: bi eguneko garbiketa egin beharra	.- e, p eta g (behar izanez gero) d: hiru eguneko garbiketa egin beharra	.- e, p eta g (behar izanez gero) d: lau eguneko garbiketa egin beharra	- p Eginkizunak: zikindutakoa garbitu.
BBKP	5.- Eskola-elkarteko edozein kideren aurka irain, kalumnia, ofentsa, laido, iseka, mehatxu, biolentzia fisiko edo jazarpen egitea, bereziki baldin eta asmo sexuala, arrazazkoa edo xenofobia badago.	- d bi egun	.- d lau egun	.- d zazpi egun	.- c	.- f
	6.- Ikastetxeko eskola-egunean zehar testu, irudi edo soinuak grabatzea, baimenik gabeko xedez erabiltzeko asmoz.	- d bi bat	.- d lau egun	.- d zazpi egun	.- f	. e (eskola-garraioa)
	7.- Aurreko puntuan adierazitako materialak hedatzea.	.- d hiru egun	.- d bost egun	.- d zazpi egun	.- f	.- e (eskola-garraioa)
	8.- Eskola-elkarteko kideen osasun fisikoaren aurka arriskutsu izan daitezkeen portaerak erabiltzea (honako honetan, a- puntua ez bezalakoa da: ez da nahitaezkoa eskola-elkarteko kideren baten osasunaren aurka jotzea (biolentzia fisikoa), aski baita arrisku hori lekarkeen portaeraren bat izatea).	- b	- d	.- c	.- f	.- e (eskola-garraioa)
	9.- Gezur esatea edo berariaz informazio faltsuren bat ematea (hala nola, salaketa faltsu bat egitea), eskola-elkarteko kideren bati kalte eragin nahian.	.- b	- d	.- c	.- f	.- e (eskola-garraioa)
	10.- Ikastetxeko ondasunen bat edo eskola-elkarteko nahiz kanpoko pertsona batena ostea (ebasketa nahiz lapurreta).	h + a	- h + b	.- h+ d hiru egun	.- h + f	
	11.- Hezitzailearen baten itxurak egitea, edo material akademikoa ostea nahiz faltsutzea.	- .- h (BAP) + d egun bat	.- h (BAP) + d bi egun	.- h (BAP) + d hiru egun	Beste batzuk h (BAP) + d lau egun eta salaketa zibila	
	12.- BBKP baten jakitun edo lekuko izan eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.	- a	.- b	.- d	.- c	- f
	13.- Obedientzia ukatzea; bereziki, ezarritako hezkuntza-neurriak ukatzen direnean.	- d bi egun	.- d lau egun	.- d zazpi egun		
	14.- Ikastetxeko instalazio, material edo dokumentuetan, eskola-garraioetan edo bisitatzen diren lekuetako ondasun nahiz instalazioetan kalte larriren bat eragitea –baita eskola-elkarteko kideen edo Ikastetxean dihardutenen gainerako langileen gauzakietan eragiten denean ere–.	.- d bi egun + h	.- d lau egun + h	.- d zazpi egun + h	.- e + h	Beste batzuk
	15.- Eskubide nahiz askatasunen aurka mintzo diren afixak paratzea, pintaketak marraztea edo bestelako adierazpen idatziak egitea.	- a+ i	.- a + b+ i	.- a + d egun bat + i	.- a + d bi egun + i	Beste batzuk

HEZKUNTZA-NEURRIAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

- **1.-** Irakasle orok, bere aginpidearen erantzukizunean, Ikastetxeak antolatutako hezkuntza-jarduerak garatu bitartean gertatzen diren bizikidetzaren aurkako portaerak aurreikusteko, agerrarazteko eta zuzentzeko betebeharra dauka.
- **2.-** Aplikatzen diren neurri guztiak ikaslearendako hezigarri eta zentzagarri izango dira, haren eskubideak begiratzen direlako bermea izan beharko dute, eta bizikidetzaren hobetzea bilatuko dute.
- **3.-** Ikasleak edo, beharrezko denean, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, hezkuntza-neurriren bat aplika dadin baino lehen, entzunak izateko eskubidea daukate.
- **4.-** Nolanahi ere, kontuan hartuko dira honako hauek:
 - o Hezkuntza-prozesuak segida izatea.
 - o Osasun fisikoaren eta duintasun pertsonalaren errespetua begiratzea.

- o Aplikatu beharreko hezkuntza-neurria ikaslearen portaerarekiko proportzioan egotea.
 - o Ikaslearen adina eta egoera pertsonala aintzat hartzea.
 - o Beharrezko denean, kalteak konpontzeko eskatzea.
- **5.-** Edozein hezkuntza-neurri aplikatu aurretik, ikasleari ohartarazi eta kargu-hartu ahal izanzen zaio, bere burua zuzen dezala eta gogoeta egin dezala eskatzeaz gainera.
 - **6.-** Irakasleek eta zuzendaritzak honako aholkulari hauek izan ditzakete: Ikastetxeko orientatzailea eta Bizikidetza Batzordea, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitza, Hezkuntzako Ikuskatzailea eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzua.
 - **7.-** Neurriak aplikatu ondoren, Ikastetxeko zuzendaritzak hala erabakiz gero, parte-hartzaileen arteko elkarriketak egiten dira, antzeko portaerak aurreikusi ahal izan daitezen.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERETAN (BAP) HEZKUNTZA-NEURRIAK APLIKATZEKO PROZEDURA

0.- Zentroek, duten autonomiaren neurrian, euren Bizikidetza Arautegian BA portaerak zehaztu ahalko dituzte, ZHP eta zentroaren izaera propioa kontuan harturik. (DF 47/2010, capítulo V, art.14,2)

1.- Bizikidetzaren aurkako portaerei buruzko hezkuntza-neurriak aplikatzea Ikastetxeko zuzendariari dagokio, edo, Ikastetxeak zehazturiko prozeduraren argibideak jaso ondoren, zuzendaria ordezkatzeko duen organoari edo irakasleari. Bizikidetzaren aurkako portaerei dagozkien hezkuntza-neurriak kudeatzearen, lehen Eranskina eransten da beherago.

2.- Bizikidetzaren aurkako portaerei dagozkien hezkuntza-neurrien taulan zehazten da nork duen horiek aplikatzeko erantzukizuna.

3.- Neurri horiek aplikatu izana, kasu bakoitzaren arabera, honako hauei jakinaraziko zaie: ikasleari, Ikastetxeko zuzendariari eta tutoreari. Gero, tutoreak ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die.

4.- Baldin eta gertakarien egileen berri izan eta hogeit hamar egun geroago hezkuntza-neurriak aplikatu ez bada, ezin izanen da halakorik aplikatu.

5.- Bizikidetzaren aurkako portaerei buruzko hezkuntza-neurrien aurka ezin da inolako erreklamaziorik egin bide administratiboan.

BIZIKIDETZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERETAN (BBKP) HEZKUNTZA-NEURRIAK APLIKATZEKO OHIKO PROZEDURA

1.- Ikastetxeko zuzendaritzak Ohiko Prozeduraren tramitazioari ekinen dio (47/2010 FDaren 20tik 23 arteko artikulak).

2.- Ikastetxeko zuzendaritzak kautelazko neurriak hartu ahal izanzen ditu behin betiko hezkuntza-neurriak aplikatu aurretik:

- Behin behinean taldez aldatzea.
- Behin behinean galaraztea hainbat klasetara edo Ikastetxera etortzea.
- Jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak galaraztea.
- Ikastetxeko zerbitzu osagarrien erabilera galaraztea.

3.- Ikastetxeak prozedura adostua hobesten du, sortzen diren gatazken ebazpenari heltzeko modu positiboa delakoan. Prozedura hau amaituko da ikaslearen, familiaren eta Ikastetxearen artean dagokion bizikidetza-konpromisoa formalizatzerakoan.

4.- Adosturiko prozedurak porrot egiten badu, ohiko prozeduraren arabera jokatu da.

5.- Ikastetxeak 2 urtez gordeko du prozeduraren tramitazioan sorturiko dokumentazioa..

6.- “Mailakatutako neurrien erlazioa gutxi gorabeherakoa da, prozedurak aurrera eramango dituen pertsonak kasu bakoitzean egokien iruditzen zaion neurria proposa dezake Bizikidetza Bereziki Kaltetzen duen Portaeraren aurrean.”

OHIKO HEZKUNTZA-NEURRIAK			
(BIZIKIDETZAREN AURKAKO PORTAERETAN)		(BIZIKIDETZA BEREZIKI KALTETZEN DUTEN PORTAERETAN)	
I	a.- Atsedendiko denbora erabiltzea, bizikidetzaren aurkako portaerak konpondu edo bideratuko dituzten ekintza espezifikoetarako.	IB	a.- Eskola-ordutegitik kanpo, eskola-elkartearen aldeko lanak egitea.
I	b.- Portaera okerra gertatzean irakasle zegoenaren ikasgaiko saio batera ez joatea (prestakuntza-jarduera lagungarriekin ordeztuko da saio horretako hutsegitea).		b.- Ikasturte osorako edo zati baterako, jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea.
IB	b.- Portaera okerra gertatzean irakasle zegoenaren ikasgaiko hiru saiotara (gehienez) ez joatea (prestakuntza-jarduera lagungarriekin ordeztuko dira saio horietako hutsegiteak).		c.- Maila bereko beste talde batera behin betiko aldatzea.
IB	c.- Bost egun arterako kanporaketa. Ikastetxean sartu edo/eta ateratzeko eskola-ordutegia, 5 eskola-egunetan gehienez, aldatzea.		d.- Ikasgai bateko edo batzuetako eskoletara (edo, salbuespenetan, Ikastetxera) etortzeko eskubidea etetea, gehienez 15 eskola-egunetan (prestakuntza-jardurekin ordeztuko dira, eta jarduera horiek azken ebaluazioan kontuan hartuko den Lan Plan derrigorrezko batera bideratuko dira).
IB	d.- Eragindako kaltea konpontzen laguntzeko, eskola-ordutegiaren barne edo kanpo hainbat lan egitea.		e.- Eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez hamabost eskola-egunetan.
IB	e.- Jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako.		f.- Ohiz kanpoko kasuetan, ikastetxez aldatzea.
IB	f.- Ikaslea, aldi baterako, beste talde batera aldatzea (denbora-muga zehazteke dago).		g.- Pribatuki desenkusatzea, eta, berriro eginez gero, publikoki. Hurrengoan, ikaskide guztiak izenez-izen aipatzea. Erasandako pertsona nola ote dagoen adieraziz, azalpen idatzi bat egitea. Oker jokatu dela onartzea eta, bakarka nahiz taldeka, oker hori berriro gertatuko ez delako konpromisoa hartzea.
IB	g.- Eskola-garraioa erabiltzeko eskubidea etetea, hamar bidaiatarako gehienez.		h.- Ostutakoa itzultzea edo ordeztea, edota hondatutakoa ordaintzea.
I	h.- Kopiatu edo kopiatzeko bidea eman den azterketan, proban edo ariketan kalifikazio negatiboa paratzea.		i.- Hormak garbitzea.
I	i.- Ikasleak, gelakideen aurrean, aurreko egunean jorratu den materia aurkeztea. Hurrengo egunean, aurreko eguneko lan guztia koadernoan ekartzea.		j.- Droga-mota ugarien eta berorien ondorioen gaineko informazioa biltzea, eta gelakideen aurrean aurkeztea.
I	j.- <i>Lana/ahalegina</i> atalean kalifikazio txarra paratzea.		
I	k.- Portaerari buruzko gogoeta egitea eta, damua adieraziz, gelakideen aurrean azaltzea.		
I/ IB	l.- Pribatuki desenkusatzea. Portaera errepikatuz gero, publikoki desenkusatzea. Irakaslearen eta gelakideen aurrean, errua ametituz, publikoki mintzatzea.		
IB	m.- Desenkusatzea, eta desenkusa dagokionaren aldeko urgazle-lanak egitea.		
IB	n.- Erasaniko pertsonen aurrean portaera zuzentzea.		
IB	o.- Objektu horiek bahiturik edukitzea: eskola-egun bat, bizpahiru eskola-egun, astea, ebaluazioa edo ikasturtea igaro arte.		
IB	p.- Eragin dituen gastuak ordaintzea ikasleak berak.		
I/ IB	q.- Familiak zigorra ezartzea.		
IB	r.- Ikasleak —portaeraz aldatu duela, debekatutakorik ez daramala edo garbi datorrela erakustearren— egunero IBn bere burua aurkeztea.		
I	t.- Familiaren, tutorearen eta IBren aurrean arrazoiak azaltzea.		

I. ERANSKINA

B.A.P. PARTEA	Erregistroa Tutoreari emateko	Familiari jakinarazi	Ikasketa Burutzari jakinarazi	Hezkuntza-neurriak (kausaren arabera)
1.- HUTSEGITEAK	EDUCA		10 (HAMAR) falta ez justifikatu edo 10en multiploak (20, 30, ...) pilatzen direnean.	- 10-ekin: jakinarazpen idatzia familiari. Gainera, hiru 7.ordutan geratu beharko da. - 20-rekin: bi egunez ez da zentrora etorriko. - 30-ekin: hiru egunez ez da zentrora etorriko. Eskola-ordutegiaz barne nahiz kanpo ikastetxean igarotzen den denbora eginkizunetan eman beharko da.
2.- ATZERAPENAK	EDUCA Ikasgai batean 3 R = BAP	Justifikatu gabeko 6 (SEI) puntualtasun falta pilatzean. (tutoreak)	10 (HAMAR) falta ez justifikatu edo 10en multiploak (20, 30, ...) pilatzen direnean.	- 10-ekin: bi 7.ordu. - 20-rekin: bost 7.ordu - 30-ekin: egun batez ez da zentrora etorriko.
3.- Ikasgelatik KANPORATZEA	Kanporaketa- partea	Irakasleak, kanporaketaren <u>egunean bertan</u> , etxera deituko du	3 (HIRU) kanporaketa-parteekin eta 3ren multiploekin (6,9,12, ...)	- Jarduera osagarrietan parte ez hartzea. - 7.orduan zentroan gelditzea. - Garbiketa-lanak, ordena, pintura, egindako kalteen konpontzea... - Egindako kalteen ordainketa. - Denboraldi batez gailuak bahitzea. - Barkamen eskaera publiko zein pribatua. -...
4.- Beste B.A.P. batzuk (partean zehaztuak)	BAP parte	3 (HIRU) parterekin (tutoreak)	6 (SEI) parte eta 6ren multiploekin (12, 18...)	- Kanporaketa-parteko jarraibide bera.

PARTE DE EXPULSIÓN / KANPORAKETA-PARTEA (por Conducta C.C.) / B. A. Portaeragatik	
---	---

Alumno/a. <i>Ikaslea</i>		Grupo <i>Taldea</i>	
Profesor/a <i>Irakaslea</i>		Fecha y Hora <i>Data eta ordua</i>	

Parte nº . *partea*

Motivo:

Arrazoia:

Firma del profesor/a
Irakaslearen sinadura

PARTE DE C.C.C. / B.A.P.-PARTEA

(Conducta Contraria a la Convivencia / Bizikidetzaren Aurkako Portaera)

Alumno/a.

Grupo

Ikaslea

Talde

Profesor/a

Fecha y Hora

Irakaslea

Data eta ordua

Motivo: (Marcar con una X)

Parte nº . parte

Arrazoia: (X bat jarri)

Actitud pasiva Jarrera pasiboa	Falta de respeto al ejercicio del estudio de sus compañeros Ikaskideei ikasteko eskubidea galaraztea
Falta de limpieza en el Centro y su entorno Ikastetxean edo inguruan garbitasunik ez izatea	Deterioro no grave del material e instalaciones del Centro. Ikastetxeko materialetan edo azpiegiturretan kalte ez larria eragitea
Llevar aparatos prohibidos por el Centro Ikastetxean gailu debekatuak eramatea	Deterioro no grave del material de los compañero/as. Ikaskideen materialetan kalte ez larria eragitea
Vestir con indumentaria inadecuada Janzkera desegokia eramatea	Faltar a clase en grupo Taldean klasera huts egitea
Dar información falsa al personal del Centro Ikastetxeko langileei informazio faltsua ematea	Trato incorrecto, discriminatorio o desconsiderado hacia los miembros de la Comunidad Educativa Eskola-elkarteko kideekin desegoki, baztertzaileki edo begirunerik gabe jokatzea
Otros Beste batzuk	Falta de respeto a la autoridad del profesorado o al personal del Centro Irakasleekin edo Ikastetxeko langileekin errespeturik ez izatea

Comentario (al dorso)

Azalpenak (atzealdean)

Firma del profesor/a

Irakaslearen sinadura

III. ERANSKINA

Ikasgai batean justifikatu gabeko hutsegiteak pilatzeak ebaluazio jarraituaren galtzea ekarriko du, honako eskema honen arabera:

Justifikatu gabeko hutsegiteak	Ebaluazio jarraituaren galtzea, ikasgaiak honako ordu-kopuru hau duenean:
5 ordu	ordu bat astean
10 ordu	2 ordu astean
15 ordu	3 ordu astean
20 ordu	4 ordu astean

IV. ERANSKINA

Ikasketa Burutzatik hezkuntza neurrien BI jakinarazpen jasotzen dituen ikasleak ez du ikasleentzat Zentroak antolatutako ikasturte amaierako irteeretan ezta ikas bidaian ere parte hartuko.